

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA**

1. Laguntza ekonomikoa genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat	2
2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa.....	4
3. Esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak	6
4. Euskadiko Elkarriketa Zibilerako Mahaian elkarriketa zibilean parte hartzen duten Hirugarren Sektore Sozialeko sare eta federazioen egituraren finkapen eta funtzionamendurako laguntzak	8
5. Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria» 2024.urterako	9
6. Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko edo adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa	10
7. Laguntza ekonomikoak enpresentzat, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzearen esparruan egoera-diagnostikoak eta ekintza-planak egiteko	14
8. Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzak	16
9. 14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen programa.....	20
10. Gazteriaren arloan programak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak	22
11. Gazteen mugikortasunerako edo elkartrukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak	24
12. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetzaproiektuak garatzeko dirulaguntza.....	26
13. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako dirulaguntzak	28
14. Emantzipa Programako 2024. urterako	30
15. Dirulaguntzak toki-entitateei immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren jarraipenerako (TEC lerroa) / Dirulaguntzak toki-entitateei immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko (LOC lerroa)	31



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua 2024

Laguntza ekonomikoa genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat

2.- Araua

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa.

1452/20005 ERREGE DEKRETUA, abenduaren 2koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. Artikuluan ezarritako dirulaguntza arautzen duena.

AGINDUA, 2014ko urriaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena —1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa.

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 7koa, Gizarte Zerbitzuen zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Aginduan aurreikusitako dirulaguntzetarako zuzkidura. Urriaren 29ko agindu horren bitartez, honako prozedura hau ezarri zen: Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura.

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Aginduan aurreikusitako dirulaguntzetarako 2023ko ekitaldian izango den kreditua handitzen dela. Agindu horren bitartez, honako prozedura hau ezarri zen: Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, genero-indarkeriaren biktima diren emakumei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (2004ko abenduaren 29ko BOE, 313. zk.)
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con>

1452/20005 ERREGE DEKRETUA, abenduaren 2koa [A41341-41344 \(boe.es\)](https://www.boe.es/eli/es/rd/2000/12/02/1452)

AGINDUA, 2014ko urriaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena —1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa— (2014ko azaroaren 19ko EHAA, 221. zk.)
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/11/1404962e.pdf>

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 7koa, Gizarte Zerbitzuen zuzendariarena, 2024ko ekitaldirako dirulaguntzetarako, 1.600.000 euroko zuzkidura argitaratzen duena.



euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/02/2400752e.shtml

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 844.010 euroko kreditua handitu dela 2024ko ekitaldirako, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014kourriaren 29ko Aginduan aurreikusitako laguntzetarako.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/11/2405151e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aipatutako dirulaguntza programaren hartzailleak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak dira, baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenak eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztenak, eta eskubide ekonomikoak bermatzen zaizkie gizarteratzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

615 laguntza-eskabide izan dira 2024an: 2024an 538 jasotakoak, gehi konpondu gabe geratutako iazko 77. 615 eskabide horietatik 547 ebatzi dira (365 onartu, 145 baztertu, 36 bertan behera utzi eta 1 uko egin), eta 68 geratu dira 2025ean ebatzeko.

Genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako dirulaguntzaren aurrekontua de 2.374.766 € izan da 2024an. Ia dena gastatu da, hain zuzen ere 2.278.080 € (%95,9).

Dirulaguntzen programa honen gizarte-eragina ukaezina da, Estatuko araudian aurreikusitako agindua betetzen baitu, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubide ekonomikoak legez ezarritako baldintzetan bermatuz. 2024an 365 emakumeari lagundu die, eta horietatik 279k (%76,4) adingabeak edo senideak zituzten ardurapean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza-eskaeren kopurua	500	615
Emandako dirulaguntzaren kopurua	330	365



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua 2024

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa

2.- Araua

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duena.

48/2024 DEKRETUA, apirilaren 16koa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa:

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duena:

48/2024 DEKRETUA, apirilaren 16koa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duena:

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza ekonomikoaren helburua da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzen bizitza garatzeko laguntza ematea eta, ahal den neurrian, haien amen heriotzak eragindako kaltea konpontzen laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024an 7 laguntza-eskaera izan dira (6 ezohiko eta 5 ohiko)

7 eskaera horietatik 6 (6 apartekoak eta 5 arruntak) onartu dira eta 1 ukatu egin da (ama hil zen egunean adin nagusikoa zen).

2024ko ekitaldian emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa 450.000 eurokoa izan da. Ia laurden bat gastatu da (% 21,01), zehazki 94.560 euro.



Dirulaguntzen programa horrek gizartean duen eragina ukaezina da; izan ere, Estatuko araudian aurreikusitako agindua betetzen du, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako seme-alaba umezurtzen eskubide ekonomikoak bermatuz, lege ezarritako baldintzetan, eta 2024an emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako 6 seme-alaba umezurtz lagundu ditu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Dirulaguntza-eskaeren kopurua	31 (31 apartekoak eta 23 arruntak)	7 (7 apartekoak eta 5 arruntak)
Emandako dirulaguntzaren kopurua	31 (31 apartekoak eta 23 arruntak)	6 (6 apartekoak eta 5 arruntak)

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko abenduaren 20koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako 2023ko deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

272/2012 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2012/12/1205640e.pdf>

Deialdiaren Agindua: [Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria](#)

Emate- ebazpena: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/09/2304194e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

271/2012 Dekretuak, abenduaren 4koak, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen baititu, helburu nagusi bat du: Eusko Jaurlaritzak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei emango dizkien laguntzen esparru orokorra arautzea, gizarte-zerbitzuetako eta, oro har, esku-hartze sozialeko jarduerak finantzatzeko. Jende guztiaren autonomia pertsonalaren sustapen eta babesera eta integrazio komunitariora bideratutako jarduerak, bereziki honako gai hauetan biltzen badira edo horiei buruzkoak badira: gizarte-zerbitzuak, gizarteratzea; familiaren babesa; haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea; etorkinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasuna; adinekoak zaintzea eta babestea; mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaindu eta babestea eta, oro har, desgaitasun-egoeran daudenak; eta askatasun eta dibertsitate afektibo-sexuala.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

GIZ deialdiari dagokionez (esku-hartze sozialeko jarduerak pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin), 365 proiektu aurkeztu zituzten 206 erakundek. Guztira 212 proiektu finantzatu ziren, eta 3.743.478,67 euro eman ziren guztira.

ELKren ildoan (esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzea) 103 proiektu aurkeztu zituzten 88 erakundek. 86 proiektu finantzatu ziren, eta 598.999,58 euro eman ziren guztira.



JAK ildoari dagokionez (esku-hartze sozialerako ezagutzaren kudeaketarako jarduerak), 83 erakundek 113 proiektu aurkeztu zituzten. Guztira 82 proiektu finantzatu ziren, eta 449.999,62 euro eman ziren guztira.

Erabilgarritasunari eta inpaktu sozialari dagokionez, nabarmendu behar da jarduera horiek sareko lana sustatzen eta indartzen dutela gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile instituzional eta sozial guztiekin, bereziki pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku hartzea sustatzen dutenekin.

Erabilgarritasunari eta gizarte-inpaktuari dagokionez, azpimarratzekoa da jarduera horiek gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile instituzional eta sozial guztiekin sareko lana sustatzen eta indartzen dutela, bereziki pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku-hartzea sustatzen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagundutako jardueren kopurua GIZ 2024	249	212
Diruz lagundutako jardueren kopurua ELK 2024	90	88
Diruz lagundutako jardueren kopurua JAK 2024	78	83

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian elkarrizketa zibilean parte hartzen duten Hirugarren Sektore Sozialeko sare eta federazioen egituraren finkapen eta funtzionamendurako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko azaroaren 2koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaian elkarrizketa zibilean parte hartzen duten Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sareen egitura sendotzeko eta jardunean jartzeko 2023. urterako laguntzak deitzen eta arautzen dituen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdiaren Agindua: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/01/2300410e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Eusko Jaurlaritzak, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren bitartez, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sareen egitura sendotzeko eta funtzionatzeko eman ahal izango dituen laguntzak arautzea, 2024ko ekitaldian Euskadiko elkarrizketa zibileko mahaian parte hartzeagatik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

9 erakunde aurkeztu dira deialdira, eta aurkeztutako 9 eskabideei baieztoko ebazpena eman zaie. Guztira, 94.142,78 euro eman dira.

Erabilgarritasunari eta inpaktu sozialari dagokienez, nabarmendu behar da erakunde horiek sareko lana sustatzen eta indartzen dutela gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile instituzional eta sozial guztiekin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako ekintza kopurua	9	9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria» 2024.urterako

2.- Araua

145/2023 DEKRETUA, urriaren 3koa, «Adinekoentzako Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria» arautu eta 2023ko deialdia egitekoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2023004779>

Deialdiaren agindua:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024004027>

Sariaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024005300>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

«Euskadi Lagunkoia» proiektua Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ekimena da, Adinekoekiko 2021-2024 Euskal Estrategiaren barruan, herritarren eta sektore publikoaren, pribatuaren eta sozialaren parte-hartzea sustatzen duena Euskadin lagunkoitasunaren aldeko mugimendu bat garatzeko, eta, horrekin batera, zahartzen ari diren pertsonentzako bizitza-ingurune eratzaileak sustatzeko. Kontuan hartuta Euskadin erakunde, organismo eta pertsona ugari egiten dutela lan lagunkoitasunaren arloan, sari honen helburua da berrikuntza eta eraginkortasunagatik nabarmentzen diren jardunbide egokien balioa azpimarratzea adineko pertsonentzat ingurune eratzaileak sortuz lagunkoitasunaren arloan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira 6 jardunbide egoki jaso ziren eta 3.000 euroko saria eman zitzaion Azkoitiko Udalak aurkeztutako "Pasira" praktikari.

.Gizarte-erabilgarritasunari eta -inpaktuari dagokionez, nabarmendu behar da sari honen deialdiak ekintza boluntarioaren hazkundera eta lankidetzak komunitarioko partaidetza-mugimenduak bultzatzen dituela Euskadin zahartzen diren pertsonekin eta haien artean eta adiskidetasun-prozesuetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagunkoitasunean Jardunbide Egokiak Saria ematea	1	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko edo adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa

2.- Araua

30/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).

121/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena (2018ko abuztuaren 6ko EHAA, 150. zk.).

27/2023 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, seme-alabaren bat duten familientzako laguntzena (2023ko otsailaren 28ko EHAA, 41. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Programaren arauak:

- 30/2015 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501448e.pdf>
- 121/2018 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/08/1804066e.pdf>
- 27/2023 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/02/2301073e.pdf>

Deialdia: ez da egiten.

Emate-erabakia: laguntzen esleipena edo ukapena ebazpen zehatzaren eta bereiziaren bidez egiten da.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurreko Dekretuen xedea familientzako dirulaguntzak arautzea da, jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko eta adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko seme-alaba kopurua handitzeak dakartzan zailtasunei erantzuten laguntzeko, eta horrela lagunduko da familiek nahi dituzten adina seme-alaba edukitzea.

Programak honako jardun-ildo hauek jasotzen ditu:

- Ardurapeko seme edo alabagatiko dirulaguntzak.
- Erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko eta nazioarteko adopzioagatiko dirulaguntzak.

Helburua: Seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzea eta haur-pobrezia prebenitzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)



30/2015 Dekretua gauzatzeko behin betiko aurrekontu-zuzkidura 900.000,00 eurokoa izan zen 2024an, eta ekitaldian ordaindutako laguntzen zenbatekoa 242.200,00 eurokoa izan zen. Horrek esan nahi du % 26,91 gauzatu zela.

Honako 325 laguntza hauek eman ziren:

- 73 laguntza ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko.
- 0 laguntza erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatik.

Gainera, ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko laguntza 252 espedientetan bikoiztu zen, jatorrizko laguntza eragin zuen semeari edo alabari % 33ko edo goragoko desgaitasuna edo mendetasun-egoera aitortzearen ondorioz.

Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzei dagokienez:

- 27 laguntza lehen semeagatik edo alabagatik eman ziren.
- 24 laguntza, bigarren semeagatik edo alabagatik.
- 22 laguntza, hirugarren edo ondorengo semeagatik edo alabagatik.

Onuradunak bizi diren lurralde historikoaren arabera:

- Gastuaren % 17,22 (41.700,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten.
- Gastuaren % 21,18 (51.300,00 euro), Gipuzkoako espedienteek.
- Eta gastuaren % 61,60 (149.200,00 euro), Bizkaiko espedienteek.

2024an 27/2023 Dekretua gauzatzeko esleitutako behin betiko aurrekontu-zuzkidura 148.784.100,00 eurokoa izan zen, aurrekontu-ekitaldiaren arabera honela banatuta:

- 36.934.100,00 euro 2024ko ordainketa-kredituari zegozkion.
- 48.920.000,00 euro, 2025ko konpromiso-kredituari.
- 43.900.000,00 euro, 2026eko konpromiso-kredituari.
- 17.960.000,00 euro, 2027ko konpromiso-kredituari.
- Eta 1.060.000,00 euro, 2028ko konpromiso-kredituari.

2024an 97.376.900,00 euroko laguntzak eman ziren, aurrekontu-ekitaldiaren arabera honela banatuta:

- 26.847.500,00 euro 2024ko ordainketa-kredituari zegozkion.
- 31.843.900,00 euro, 2025ko konpromiso-kredituari.
- 29.067.600,00 euro, 2026eko konpromiso-kredituari.
- 9.208.000,00 euro, 2027ko konpromiso-kredituari.
- Eta 409.900,00 euro, 2028ko konpromiso-kredituari.

Exekuzioa, beraz, % 65,45koa izan zen.

Hona hemen gastuaren banaketa onuradunen bizilekuaren lurralde historikoaren arabera:

- Gastuaren % 16,24 (15.814.800,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten.
- % 35,45 (34.523.700,00 euro), Gipuzkoako espedienteek.
- Eta % 48,31 (47.038.400,00 euro), Bizkaiko espedienteek.

Guztira 15.749 laguntza eman ziren, honela banatuta:

- 13.056, 0 eta 3 urte bitarteko seme-alabek eragindako laguntzei zegozkien.



- 2.025, 3 eta 7 urte bitarteko hirugarren edo ondorengo seme-alabek eragindako laguntzei.
- 481, desgaitasunen bat edo mendetasun-egoeraren bat aitortzeagatiko laguntzei.
- Eta 187, erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko eta nazioarteko adopzioagatiko aparteko laguntzei.

Azkenik, 2024an ordaindutako laguntzek 26.734.600,00 euroko ordainketa ekarri zuten.

2024an 27/2023 Dekretua gauzatzeko 2023an (2024ko gastu-konpromisoarekin) emandako eskaerretarako esleitutako aurrekontu-zuzkidura 80.905.500,00 eurokoa izan zen. Azkenik, 2024an 76.836.500,00 euro xedatu dira.

Gastuaren banaketa onuradunen bizilekuaren lurralde historikoaren arabera honako hau da:

- Gastuaren % 16,82 (12.922.200,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten.
- % 34,18 (26.260.300,00 euro), Gipuzkoako espedienteek.
- Eta % 49,00 (37.654.000,00 euro), Bizkaiko espedienteek.

2023an, 2024rako gastu-konpromisoarekin, 40.410 laguntza eman ziren guztira, honela banatuta:

- 35.225, 0 eta 3 urte bitarteko seme-alabek eragindako laguntzei zegozkien.
- 5.084, 3 eta 7 urte bitarteko hirugarren edo ondorengo seme-alabek eragindako laguntzei.
- 101, desgaitasunen bat edo mendetasun-egoeraren bat aitortzeagatiko laguntzei.

Azkenik, 2024an ordaindutako laguntzek 75.387.000,00 euroko ordainketa ekarri zuten.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
30/2015 Dekretua:		
Lehen seme-alabarengatiko laguntzak.	111	27
Bigarren seme-alabarengatiko laguntzak.	232	24
Hirugarren seme-alabarengatiko edo hurrengoengatiko laguntzak.	194	22
Erditze anitz, adopzio nazional anitz, adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetza anitz, tutoretza anitz eta nazioarteko adopzio bakun nahiz anitzengatiko laguntzak.	4	0
% 33ko edo gehiagoko desgaitasunengatiko edo mendekotasunengatiko laguntzen bikoizketa.	493	252
27/2023 Dekretua:		
2023an emandako eta 2024 ordainketak dituzten 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrengatiko dirulaguntzak	35.225	35.225
2023an emandako eta 2024 ordainketak dituzten 3 urtetik 7 urtera bitarteko haurrengatiko dirulaguntzak	5.084	5.084
2023an emandako eta 2024 ordainketak dituzten % 33ko edo gehiagoko desgaitasunengatiko edo mendekotasunengatiko laguntzen bikoizketa	101	101



2024an emango diren 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrengatiko dirulaguntzak	17.145	13.056
2024an emango diren 3 urtetik 7 urtera bitarteko haurrengatiko dirulaguntzak	3.109	2.025
2024an emango diren % 33ko edo gehiagoko desgaitasunengatiko edo mendekotasunengatiko laguntzen bikoizketa	386	481
2024an emango diren erditze anitz, adopzio nazional anitz, adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetza anitz, tutoretza anitz eta nazioarteko adopzio bakun nahiz anitzengatiko laguntzak	258	187



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laguntza ekonomikoak enpresentzat, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzearen esparruan egoera-diagnostikoak eta ekintza-planak egiteko

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 17koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoan establezimenduren bat duten entitateei bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lanaren kontziliazioaren arloko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko laguntza ekonomikoak emateko oinarriak, eta 2024rako deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Agindua eta deialdia

Aldizkaria: 2024-4003 (2024/08/21)

AGINDUA, 2024ko uztailaren 17koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoan establezimenduren bat duten entitateei bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lanaren kontziliazioaren arloko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko laguntza ekonomikoak emateko oinarriak, eta 2024rako deialdia egiten baita.

Balorazio Batzordea izendatzeko ebazpena

Aldizkaria: 2024-4406 (2024/09/24)

EBAZPENA, 2024ko irailaren 9koa, Gizarte Politiketako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko dirulaguntzak emateko balorazio-batzordeko kideak izendatzen dituen, 2024ko deialdian.

Dirulaguntza emateko ebazpena

Aldizkaria: 2025-212 (2025/01/15)

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 9koa, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordearena, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2024ko uztailaren 17ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntzen eskabideak ebazten dituen. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako establezimenduak dituzten erakundeei laguntza ekonomikoak emateko oinarriak onartu ziren, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzearen arloko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko, eta 2024rako deialdia egin zen.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEn lantokiak dituzten erakundeei laguntza ematea, erakunde aholku-emaile baten zerbitzuak kontratatu ahal izan ditzaten, diagnostiko bat eta kontziliaziorako ekintza-plan bat egiten laguntzeko.

Dirulaguntza horren bidez, erakundeak animatu nahi dira bateragarritasunaren arloan duten egoera aztertzeraz eta langileen beharrak ezagutzera, langileei bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzen lagunduko dieten planak ezartzeko.

Helburua: Egoera-diagnostikoak eta ekintza-planak egin daitezen sustatzea, enpresetan bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzearen esparruan.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

18 eskaera jaso ziren eta guztiak onartu ziren. Kasu guztietan, aurkeztutako proiektuek oinarrietan eskatutako 100etik 50 puntuko gutxieneko puntuazioa gainditu dute, eta erakundeek eskatutako zenbatekoak Aginduan adierazitako parametroetara egokitzen dira.

Beraz, 18 erakunde izan ziren onuradun, 124.474,70 euroko gastuarekin guztira, 62.237,35€ 2024ko aurrekontuaren kontura eta 62.237,35€ 2025ko konpromiso-kredituaren kontura.

Dirulaguntza jaso zuten enpresek 3.989 langile dituzte guztira.

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Laguntza-eskaeren kopurua	60	18
Enpresa eskatzaileen kopurua lurralde historikoaren arabera	Bizkaia 25 Gipuzkoa 20 Araba 15	Bizkaia 6 Gipuzkoa 9 Araba 3
Diruz lagundutako enpresen kopurua	60	18
Eragindako langileen kopurua	2.500	3.989
Eragindako emakume enplegatuen kopurua	1.500	1.659

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzak

2.- Araua

177/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (2020ko ekainaren 7ko EHAA, 129. zk.).

2010eko ekainaren 30ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituen.

154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (2012ko abuztuaren 6ko EHAA, 152. zk.).

31/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoa (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).

32/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen Dekretua aldatzekoa (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).

AGINDUA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak.

164/2019 DEKRETUA, urriaren 22koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (2019ko urriaren 31ko EHAA, 208. zk.).

AGINDUA, 2019ko urriaren 23koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuarena, zeinaren bidez onesten baitira, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa, 164/2019 dekretuaren II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako dirulaguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak

AGINDUA, 2024ko abenduaren 2koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez onesten baitira familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuak II. eta III. kapituluetan aurreikusitako dirulaguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

177/2010 Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003308a.pdf>.

2010eko ekainaren 30eko Agindua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003341a.pdf>

154/2012 Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902174e.pdf>

31/2015 Dekretua :



<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501449e.pdf>

32/15 Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501450e.pdf>

2015eko apirilaren 1eko Agindua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/04/1501673e.pdf>

164/2019 Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/10/1905022a.pdf>

2019ko urriaren 23ko Agindua:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1905032e.pdf>

2024ko abenduaren 2ko Agindua:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/03/2501370e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurreko dekretuen helburua, familientzako diru-laguntzak arautzea da, gurasoek beren seme-alabei behar duten denbora guztia eskaini ahal izan diezaieten, familien beharrezanez begira gizarte-denboraren antolaketa egokiagoa sustatuz eta gizarte-antolaketa erantzukipea bultzatuz.

164/2019 Dekretuak familia eta lana bateragarri egiteko hiru laguntza-ildo aurreikusten ditu, langileei zuzenduta:

1. Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak. Bi jarduera-ildotan banatuta:

- a. Lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak, gurasoek urtebete baino gutxiago izateagatik eta zaintzeagatik ematen dituzten kontribuzio-prestazioen aldiak parekatzeko (2020 da lerro honek aurrekontu-zuzkidura duen lehen urtea).
- b. 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran eta 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa-egoeran dauden langileentzako laguntzak.

2. Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak.

3. Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak.

Helburua: familietako kideak zaintzeak eta familiek beren familia-proiektuak garatzeak zuzenean edo zeharka sortutako kostuak konpentsatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024an programari esleitutako aurrekontu-zuzkidura 27.889.000,00 eurokoa izan zen, eta ekitaldian emandako laguntzen zenbatekoa 18.079.715,32 eurokoa izan zen; hau da, % 64,83 gauzatu zen.

Gastuaren banaketa honako hau izan zen:



- 17.116.091,48 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzetarako; 11.316 pertsona izan ziren onuradunak.
Horiek honela banatu ziren: 3.240.558,14 euro (% 18,93) eszedentzietarako eta 13.875.533,34 euro (% 81,07) murrizketetarako.
Onuraduna bizi den lurralde historikoaren arabera.
 - % 22,49 (3.849.248,05 euro) Arabako espedienteetarako.
 - % 32,84 (5.621.629,65euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
 - % 44,67 (7.645.213,78 euro) Bizkaiko espedienteetarako.
 - 789.117,08 euro mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzetarako, 461 pertsona izan baitziren onuradun.
Horiek, 86.491,12 eurotan banatu ziren (% 10,96) eszedentzietarako eta 702.625,96 eurotan (% 89,04) murrizketetarako.
Onuraduna bizi den lurralde historikoaren arabera:
 - % 25,60 (202.032,01 euro) Arabako espedienteetarako.
 - % 28,54 (225.206,93 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
 - % 45,86 (361.878,14 euro) Bizkaiko espedienteetarako.
 - 876,08 euro seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeako laguntzetarako izan ziren, eta pertsona 1 izan zen onuraduna, Bizkaian.
 - 173.630,68 euro amatasun-baimenaz gozatu ez duen gurasoaren eszedentziagatiko laguntzen onuradunei dagozkien, eta a 37 pertsona izan ziren onuradunak.
Gastu osoa honela banatu zen lurraldeka:
 - % 20,96 (36.396,47 euro) Arabako espedienteetarako.
 - % 39,93 (69.328,97 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
 - % 39,11 (67.905,24 euro) Bizkaiko espedienteetarako.
 - 0,00 euro urtebetetik beherako adingabea zaintzeko 18 astera arteko gurasotasun-baimenetarako laguntzen onuradunei eman zitzaizkien. 2024an ez zen onuradunik izan, jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko prestazioa 18 astera igotzeko laguntzei buruzko Dekretu berri baten garapena ez zelako argitaratu. 2025ean egitea aurreikusi da.
- Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatiko laguntza-lerroaren kasuan, kontuan hartu behar da ezen, irailaren 7ko 102/2022 Dekretua (14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeako laguntzei buruzkoa) 2022ko urriaren 1ean indarrean sartu zenean, lerro hori indargabetu zela (164/2019 Dekretuaren V. kapitulua). Horregatik, dirulaguntzaren zenbatekoa oso txikia da, jada 2023an ez baitzen eskaera berririk egin.
- Azkenik, amatasun-baimenaz gozatu ez duen gurasoaren eszedentziagatiko laguntzen onuradunentzako laguntza-ildoaren kasuan, 2022ko martxoaren 31tik aurrera, aplikazio-eremua guraso bakarreko familietara murrizten da. Horregatik, egikaritzearen zenbatekoa askoz txikiagoa izan da.



Berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak:

- Seme-alabak, mendeko senideak eta osasun-egoera oso larrian daudenak zaintzeko eszedentzia eta lanaldi-murrizketetarako laguntzak baliatzeko gehieneko denborak handitzen dira, eskatzailea gizona bada. Familiako erantzukizunak modu orekatuan hartzea da helburua.

- Seme-alabak zaintzeko eszedentzia eta lanaldi-murrizketetarako laguntzen onuradun diren gizonen ehunekoa: % 15,57 (ehuneko 5,77 puntu gehiago 2019arekiko)
- Mendeko senideentzako eta osasun-egoera oso larrian daudenentzako eszedentzia eta lanaldi-murrizketetarako laguntzen onuradun diren gizonen ehunekoa: % 21,04 (ehuneko 5,70 puntu gehiago 2019arekiko)

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea (Onuradunak)</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Semeak edo alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzen onuradunak.	14.250	11.316
Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzen onuradunak.	650	461
Adingabe seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeako laguntzen onuradunak.	39	1
Amatasun-baimenaz gozatu ez duten gurasoaren eszedentziagatiko laguntzen onuradunak:		
• Bi gurasoko familiak	20	7
• Guraso bakarreko familiak	120	30
Urtebetetik beherako adingabea zaintzeko 18 astera arteko gurasotasun-baimenetarako laguntzen onuradunak	50	0

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen programa

2.- Araua

177/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (2020ko ekainaren 7ko EHAA, 129. zk.).

2010eko ekainaren 30ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituen.

154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (2012ko abuztuaren 6ko EHAA, 152. zk.).

31/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoa (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).

32/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen Dekretua aldatzekoa (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).

AGINDUA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak.

164/2019 DEKRETUA, urriaren 22koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (2019ko urriaren 31ko EHAA, 208. zk.).

102/2022 DEKRETUA, irailaren 7koa, 14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzena (2022ko irailaren 19ko EHHA, 179. zk.)

AGINDUA, 2022ko irailaren 20koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko irailaren 7ko 102/2022 Dekretuan aurreikusitako laguntza eskuratzeko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa eta laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

177/2010 Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003308a.pdf>.

2010eko ekainaren 30eko Agindua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003341a.pdf>

154/2012 Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902174e.pdf>

31/2015 Dekretua :

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501449e.pdf>

32/15 Dekretua:



<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501450e.pdf>

2015eko apirilaren 1eko Agindua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/04/1501673e.pdf>

164/2019 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/10/1905022a.pdf>

102/2022 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204041e.pdf>

2022ko irailaren 20ko Agindua:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204202e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: Bi gurasoek (lanaldien % 100ean) lan egiten duten eta 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko etxean langileak kontratatu behar izan dituzten familien familia eta lana bateragarri egiten laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024an programari esleitutako aurrekontu-zuzkidura 2.000.000,00 eurokoa izan zen, eta ekitaldian emandako laguntzen zenbatekoa 926.453,87 eurokoa izan zen; hau da, % 46,32 gauzatu zen.

Gastuaren banaketa honako hau izan zen:

- 926.453,87 euro 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzekeo laguntzei dagozkie, eta 854 pertsona izan ziren onuradunak.
- Onuraduna bizi den lurralde historikoaren arabera:
 - % 8,43 (78.061,92 euro) Arabako espedienteetarako.
 - % 28,17 (260.982,75 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
 - % 63,40 (587.409,20 euro) Bizkaiko espedienteetarako.

2024ko ekitaldi honetan 926.453,87 € egikaritu dira, % 92,53 iazkoarekin alderatuta. Hala ere, % 5 eskaera gehiago aurkeztu dira, eta horrek hazkunde-horizontea erakusten digu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea (Onuradunak)</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzekeo laguntzen onuradunak	1.600	854

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteriaren arloan programak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 29koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, 2024. urtean gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/03/2401380e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405945e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua lurraldez gairik jarraitzen duen jarduerak gauzatzen laguntzea da, gazte-elkarteek sustatutakoak edo gazteen bizi-kalitatea hobetzea, aisialdiko hezkuntza sustatzeko ekimenak gauzatzea, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzailerik soziokulturalen ikastaroak gauzatzea eta euskal gazteen bizi-kalitatea sustatzeko eta hobetzeko jarduerak zehatzak gauzatzea helburu dutenak. Jarduerak horiek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako erakundeek egin behar dituzte, eta erakunde horien helburuek eta edukiek izaera berritzailea izan behar dute edo gizartean eragina izan behar dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2024ko ekitaldian, Gazteria Zuzendaritzak 85 dirulaguntza-eskaera erregistratu ditu. Horietatik 75ek dirulaguntza jaso dute, 4k atzera egin dute aurkeztutako eskaeran eta 8k atzera bota dituzte hainbat arrazoiengatik (2024an ez egitea, irabazi-asmorik gabeko erakundeak ez izatea, deialdian eskatzen zen gutxieneko autofinantzaketa ez lortzea edo deialdiaren aplikazio-eremutik kanpo dauden jarduerak izatea edo Gazteria Zuzendaritzaren jarduerak eremuekin bat ez etortzea).

75 proiekturi eman zaie dirulaguntza. Halaber, esleitutako dirulaguntzen zenbateko osoa 786.249 eurokoa da, hau da, esleitutako zuzkidura ekonomikoaren % 99,99 (800.000 €). Diruz lagundutako jarduerak horiek baliagarritzat eta beharrezkotzat jotzen dira gazte-asoziazionismoaren jarduerak sustatzeko, oro har, eta diruz lagundutako arloetan sartzen diren jarduerak eta programa guztiak, bereziki, lehen deskribatu ditugunak. Ildo horretan, uste da jarduerak horiek eragin handia dutela gizartean, gazteen sustapenean, garapen pertsonalean eta gizarteratzean.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	60	75

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteen mugikortasunerako edo elkartruckerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 27koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, 2024an gazteen mugikortasunerako edo trukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdia egitekoa eta dirulaguntzak emateko araubidea ezartzekoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

Arau erregulatzaila eta deialdia:

https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/dirulaguntzak_mugikortasuna_2/eu_def/adjuntos/mugikortasunerako_jarduerak_garatzeko_dirulaguntzen_deialdia_e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua lurraldez gaindiko jarduera-programak gauzatzen laguntzea da, gazte-elkartek edo gazteen bizi-kalitatea sustatzea eta hobetzea, aisialdiko hezkuntza sustatzeko ekimenak gauzatzea, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak gauzatzea eta euskal gazteen bizi-kalitatea sustatzeko eta hobetzeko jarduera zehatzak gauzatzea helburu dutenak. Jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako erakundeek egin behar dituzte, eta erakunde horien helburuek eta edukiek izaera berritzailea izan behar dute edo gizartean eragina izan behar dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2024ko ekitaldian, Gazteria Zuzendaritzak 17 dirulaguntza-eskaera erregistratu zituen. Horietatik 8k dirulaguntza jaso dute eta 9k atzera bota dituzte hainbat arrazoiengatik (deialdian eskatzen zen gutxieneko autofinantzaketa ez lortzea edo jarduerak Europar Batasuneko beste eskualde edo estatu batzuetako gazte-taldeekin batera ez egitea).

Esleitutako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 118.282 eurokoa izan zen, hau da, bideratutako diruzukiduraren % 81,2 (145.000 €).

Argi dago jarduera guztiek betetzen dutela aginduaren xedea; sortu zeneko filosofia, hau da, tresna bat gehiago izatea, gazteen integrazioa sustatzeko lan egingo duena, kasu honetan, gazteen mugikortasunera edo elkartrukera bideratutako jardueren bidez, erakunde eskatzaileen ekimenetik bertatik; izan ere, erakunde horiek askatasun eta ekimen sortzaile osoa dute edozein jarduera edo programa planifikatzeko eta antolatzeko. Zalantzarik gabe, hainbat erakundetako elkartutako herritarren benetako ekimenetik sortzen diren jarduerak dira, onartzen baitute gazteen mugikortasuna funtsezkoa dela Europako kide izatearen sentimendua sustatzeko, eta, gaitasunak, trebetasunak eta gaitasunak garatuz, haien gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko.



Horrela, diruz lagundutako jarduerak baliagarritzat eta beharrezkotzat jotzen dira gazteentzako programak eta zerbitzuak, oro har, eta gazteen mugikortasuna, bereziki, sustatzeko eta garatzeko, arestian deskribatu dugunez. Ildo horretan, uste da jarduera horiek eragin handia dutela gizartean, gazteen sustapenean, garapen pertsonalean eta gizarteratzean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	15	8

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetzako proiektuak garatzeko dirulaguntza

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 22koa, Gazteriako zuzendariarena, garapenerako lankidetzako entitateei deialdia egiten diena 2024an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkezteko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305469e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402795e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEei zuzendutako dirulaguntza da, garapen-bidean dauden herrialdeetako lankidetzako proiektuak aurkezteko. Programaren helburua euskal gazteak solidaritate- eta partaidetza-balioekiko sensibilizatzea da. GGKEek 800 euro jasoko dituzte aurkeztutako proiektuetan parte hartzen duen lankide bakoitzeko, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan hautatutako gazte boluntarioaren egonaldi- eta mantenu-gastuak zati batean ordaintzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasun eta inpaktu soziala 25 lankidetzako proiektu aurkeztu ziren, eta 225 lagunek izapidetu zuten eskabidea; horietatik 66k parte hartu zuten azkenean. Hautatutako pertsonen udako hiru hilabeteetan lankidetzako proiektuetan parte hartu dute Amerika eta Afrikako 9 herrialdetan.

2024an, 27 GGKEk parte hartu zuten programan.

Aurrekontua gauzatzeari dagokionez, partidaren kreditua 80.000 eurokoa zen, eta horietatik 53.600 euro exekutatu dira.

Programaren erabilgarritasun eta inpaktu sozialari dagokionez, uste da handia dela, gazteek bildutako informazioa ikusita. Parte-hartzaileei egindako galdera-sortetan, honako esaldi hauekin duten adostasun-mailari buruz galdetu zen. Esaldi horien balorazioa ikus daiteke:

EGL programari esker, garapenerako lankidetzako proiektuak ezagutu eta horietan parte hartzeko aukera izan dut	8,4
EGL programan parte hartzeak garapenerako lankidetzaren arloan esperientzia bat in situ bizitzeko balio izan dit	8,8



EGL programa lagungarria izan da garapenerako lankidetzaren arloko ekintzetan sentsibilizatuago edo sentsibilizatuago egoteko	9,6		
EGL programak beste lurralde batzuetako pertsonetikiko eta errealitateekiko begirada enpatikoagoa izan dezan lagundu du.	9,6		
Ilido beretik, GGKEek ere positiboki baloratu dute programaren helburuen betetze-maila: <table> <tr> <td>Zure ustez, zenbateraino bete dira programaren helburuak?</td><td>9,4</td></tr> </table> Horregatik guztiagatik, betetze-maila egokitzen jotzen da, programak hasieran planteatutako helburuak betetzen dituelako eta gizartean eragin handia duelako.		Zure ustez, zenbateraino bete dira programaren helburuak?	9,4
Zure ustez, zenbateraino bete dira programaren helburuak?	9,4		

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
GGKE parte-hartzaileak	40	39



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako dirulaguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 24koa, Gazteriako zuzendariarena, zeinaren bidez «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programaren deialdia egiten baita 2024. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305604e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2402008e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programaren helburua da 22 eta 30 urte bitarteko 100 gazte, gehienez, herrialde eta lankidetzaproiektu jakin batzuetara lekualda daitezen erraztea, urtero proiektuak aurkezteko modua arautzen duen ebazpenean xedatutakoaren arabera (EBAZPENA, 2023ko azaroaren 24koa, Gazteriako zuzendariarena, zeinaren bidez «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programaren deialdia egiten baita 2024. Urterako).

Programa honen helburua da Euskadiko gazteak hegoaldeko herrialdeetako lankidetzakintzetan sentsibilizatzea eta euskal gazterian herrien eta kulturen arteko elkartasun-kultura sustatzea. Horretarako, linea honek pertsonen helmugarainoko bidaia diruz laguntzen du, baita bidaia-asegurua eta bisa-gastuak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

225 gaztek eman zuten izena eta azkenean 66 izan ziren parte-hartzaileak. Garapenerako gobernu kanpoko 27 erakundek hartu zuten parte, horietatik 11 Euskadikoak eta 16 helmugako herrialdeetakoak. Guztira 25 lankidetzaproiektu burutu ziren Amerika eta Afrikako 9 herrialdetan.

Aurten 66 gaztek parte hartu dute. Datu hori ontzat jotzen da programaren hartzaileak gero eta gutxiago direla kontuan hartzen bada.

2024an, gazteei inkesta kuantitatibo bat egiten zitzaien hirugarren aldia izan zen. Inkesta horietatik lortu da parte hartu duten gazteek 8,1eko balorazioa eman diotela programari, oro har. Hau da, pertsonak oso ondo baloratzen dute programa.

Programaren erabilgarritasun eta inpaktu sozialari dagokionez, uste da handia dela, gazteek bildutako informazioa ikusita. Parte-hartzaileei egindako galdera-sortetan, honako esaldi hauekin duten adostasun-mailari buruz galdetu zen. Esaldi horien balorazioa ikus daiteke:



EGL programari esker, garapenerako lankidetzaproiektuak ezagutu eta horietan parte hartzeko aukera izan dut	8,35
EGL programan parte hartzeak garapenerako lankidetzaren arloan esperientzia bat in situ bizitzeko balio izan dit	8,8
EGL programa lagungarria izan da garapenerako lankidetzaren arloko ekintzetan sentsibilizatuago edo sentsibilizatuago egoteko	9,6
EGL programak beste lurralde batzuetako pertsonekiko eta errealitateekiko begirada enpatikoagoa izan dezan lagundu du.	9,6
Ildo beretik, GGKEek ere positiboki baloratu dute programaren helburuen betetze-maila:	
Zure ustez, zenbateraino bete dira programaren helburuak?	9,4
Horregatik guztiagatik, programak hasieran planteatutako helburuak betetzen dituela eta gizartean eragin handia duela uste da.	

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Gazte parte-hartzaileak	100	66

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Emantzipa Programako 2024. urterako

2.- Araua

191/2023 DEKRETUA, abenduaren 26koa, gazteen emantzipaziorako Emantzipa Programaren laguntzak arautzen dituen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Arau erregulatzailerak

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400196e.pdf>

Deialdia

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/02/2400853e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Emantzipa Programa dirulaguntzen programa bat da, eta hilean zenbateko bat ordaintzen du, gazteen emantzipazio-prozesuak hasten edo finkatzen laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-gauzatzea eta erabilgarritasun eta inpaktu soziala. (Era berean, dirulaguntzen programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko eta talde gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere).

2024an, programak 10.366.800 euro esleitu zituen guztira, honela banatuta: 1.596.300 €Arabara, 5.308.800 €Bizkaian eta 3.461.700 €Gipuzkoan.

Emantzipa programaren lehenengo deialdian 8.285 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 6.173 onartu ziren. Lurraldeka, 906 laguntza eman ziren Araban, 3.193 Bizkaian eta 2.074 Gipuzkoan. Generoaren arabera banaketari dagokionez, eskatzaileen % 60 emakumeak dira eta % 40 gizonak.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako laguntza kopurua	15.000	6.173
Eskatzaileen batez besteko adina		27 urte



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Dirulaguntzak toki-entitateei immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren jarraipenerako (TEC lerroa) / Dirulaguntzak toki-entitateei immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko (LOC lerroa)

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urriaren 2koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena; honen bitartez onartzen baitira laguntza ekonomikoak emateko EAEko toki-entitateei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei 2024.urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404770e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen xedea toki-entitateek beren ekimenez egindako esku-hartze soziala sustatzea da, immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean horrelako toki-entitateak laguntzeko.

Programak bi diru-laguntza lerro ditu, ondorengo helburu ezberdinekin:

- TEK ildoak immigrazioko teknikarien kontratazioari eustea finantzatzeko du, 2023an indarrean zeudenak eta kontratazio horiek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako dirulaguntzak jaso badituzte, arlo horretan espezializatutako giza baliabideak izateko helburua izan dutenak. Lerro horretara bideratutako partida 480.000,00 eurokoa da.
- LOC ildoak immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egitea, gauzatzea eta ebaluatzea finantzatzen du. Lerro horretara bideratutako partida 850.000,00 eurokoa da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Harrera eta integrazioaren aldeko lanean jaurlaritzaren eta udalen arteko koordinazio tresna sendotzea (TEK lerroa).

2024an, 15 immigrazio teknikarien kontratazioa finantzatu da 11 erakunde publikotan, 480.000,00 euroko zenbatekoaren bidez.

Kulturartekotasunaren esparruan udal-lanerako laguntza tekniko eta finantzarioa emateko baliabideak ezartzea (LOC lerroa).

2024an, jasotako 36 eskarieratik, 36ri eman zaie dirulaguntza, 849.874,85 euroko zenbatekoaren bidez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak



<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Entitate-kopurua (TEK 2024)	12	11
Entitate-kopurua (LOC 2024)	33	36